

Zika birusaren hedapenari eta ondorioei neurria hartu nahian



Aedes aegypti eltxoa, pertsona bati heltzen. ARG.: JAMES GATHANY/CDC.

Munduko Osasun Erakundeak [Zika birusarengatik](#) mundu-mailako larrialdi egoera ezarri du. Izan ere, infekzioak izugarri ari dira hedatzen, bereziki Amerikako eremu tropikaletan, eta, horrekin batera, asko areagotu dira mikrozeftalia-kasuak jaioberrian, eta Guillain-Barré sindrome-kasuak.

Brasilen, adibidez, mikrozeftaliarekin jaiotako 4.000 haur inguru zenbatu dituzte iazko urritik hona; 2010etik 2014ra izan zirenak baino 20 aldiz gehiago. Guillain-Barré sindromeak, berriz, kalte neurologiko larriak eragin ditu zenbait infektatuetan. Alabaina, ez bata ez bestean, [birusaren eta gaitzaren arteko erlazioa ez dago frogatuta](#), eta hori da, hain justu, osasun-agintarien kezketako bat.

Bestelakoan, Zika birusak eragiten dituen sintomak nahiko arinak dira, eta kasu askotan asintomatikoa da. Gehien bat, izan duen hedapen azkarak kezkatzen ditu adituak. *Aedes aegypti* eltxoaren bidez transmititzen da (dengea eta sukarrak kutsatzen dituen berbera), eta, beraz, hura kontrolatzeko neurriak dira orain lehenetasun nagusi. Ez da erraza, ordea, eltxo hori oso ugaria baita klima tropikaleko herrialde guztietan, eta eguraldia ere lagun du azkenaldian, ur geldotan bizi baita. El Niño eragindako uholdeek utzitako putzuak ez dira lehortu, eta euria egiten jarraitzen du. ●

Alzheimerrek eragindako oroimen-galera eragozteko mekanismo gako bat identifikatu dute


Alzheimer gaitzean oroimen-galera eragiten duen aldaketa bat identifikatu dute neuronan arteko sinapsietan gaur egun Biofisika Unitateko kide den Shira Knafo doktoreak eta haren taldeak. Eta, are gehiago, saguetan egindako esperimentu batean, aldaketa horretan eraginda, saguek oroimenari eustea lortu dute.

Knaforekin batera, Severo Ochoa Biologia Molekularreko Zentroko eta Espainiako Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitateko ikertzaileak aritu dira

frogatu dute proteina horrekin lotutako mekanismoa deskontrolatu egiten dela alzheimerrean.

Zehaztu dutenez, alzheimerrean agertzen den beta-amiloideak behar baino PTEN gehiago igortzen du sinapsietara, eta, horren ondorioz, neuronan arteko plastizitate-mekanismoak desorekatu egiten dira. Horrek ekartzen du, hain justu, oroimena galtzea.

Hortik abiatuta, oroimen-galera eragozteko estrategia bat proposatu dute ikertzaileek: PTEN proteina sinapsieta-



Shira Knafok eta haren lantaldeak alzheimerrean gertatzen den oroimen-galera eragozteko estrategia molekular bat garatu dute. ARG.: IKERBASQUE.

lanean, eta *Nature Neuroscience* aldizkarian argitaratu dute ikerketa. Hain zuzen, 2010. urtean, oroimen-prozesuetan parte hartzen duen proteina giltzarri bat identifikatu zuten Severo Ochoa zentrokoek: PTEN proteina. Orain, Knafok gidatutako ikerketan,

ra iristea galarazten duen tresna molekular bat garatu dute. Saguetan probatu dute, eta baieztatu dute, horren bidez, neuronak beta-amiloideekiko erresistente bihurtzen direla eta saguek oroimenari eusten diotela. ●